

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2007KO EKAINAREN HAMAHIRUAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHIKO BATZARRALDIKO AKTA.

Zumaiako hirian, bi mila eta zazpiko ekainaren hamahiruan, arratsaldeko zazpiretan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da, ezohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea. ¿?
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA. 2006.- 2006.10.26; 2006.11.10; 2006.12.29 eta 2007.- 2007.02.16; 2007.03.30

Alkate-lehendakari andreak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenera aurkeztutako akteri buruz, korporazioko kideren batek, zuzenketarik egin nahi duen galdetu du.

Alkateak korporaziokideek oharpen edo emendakinik aurkezte ez dutenez, ondorengo zuzenketak proposatzen ditu:

.- 2006-10-26ko datako Akta:
Gazteleraz dagoen aktan:

Idazpuruan: Guipúzcoa, “Gipuzkoa”-gatik ordezkatu.
5. orrialdean, azken lerroartean, Izustarrrik “ura” dionean “zaborra” esan behar du.

Andoni Etxaniz Osa IZUSTARRIko zinegotziak, zera galdetzen du: zer dela eta sei hilabete terdian ez den udal batza osoko ohiko bilkurarik egin, 7/1985eko eraentza lokaleko oinarrien Legeak 46,2 a) artikuluan udal batzak ohiko plenoa bi hilabeteren behin egin behar dela dionean.

Alkatesak erantzuten du, funtsean eztabaidatu behar ziren gaien presazko izaeragatik izan dela, gai hauek ezin zutelako itxaron ohiko Pleno batean erabakiak izan zitezten eta baita ere, plenoen deialdiak egitearen aurrerapenaz oposizioak galdatutakoa betetzearen eraginez.

.- 2006-12-29ko datako Akta:
Gazteleraz dagoen aktan:

31. orrialdean: “el PNV está feliz” esaldia era egokiago batean itzultzea eskatzen du.
35 orrialdeko lerroaldi baten idazketaren bidez kotasuna eztabaidatzen da eta azkenean ontzat ematen da.

.- 2007-03-30ko datako Akta:

6 orrialdea: EAJ-ak adierazitakoak osatu “berdin sarea”ren aipamena jasoaz.

Zuzenketa edo emendakin gehiagorik aurkezten ez denez, bozketa eginda, korporaziokideek aho batez 2006.10.26; 2006.11.10; 2006.12.29; 2007.02.16; eta 2007.03.30 eko datako aktak onartu dute dituzte, azalduko aipamenak kontuan izanik.

Beste gairik izan gabe, arratsaldeko zazpi terdiak direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA